

## **PASAPORTE A PIMLICO (Henry Cornelius)**

**Maiatzak 20, osteguna, 19:00**

**84 min**

II. Mundu Gerrako lehertu gabeko bonba baten ondorioz, Pimlico lurperatutako dokumentu bat aurkitu zen, Londresko gune zehatz batean. Papera, auzo hau Frantziako Borgoinarena dela dioen tratatu bat da. Hain aurkikuntza harrigarria egindakoan "Pimlico sekzioak", Londres erdian dagoen komunitate txiki batek, Inglaterratik independente izendatzen du bere burua eta horrela jokatzen saiatzen da.

Nazionalismo txato, merke, erdipurdikoei barre egitea, horixe da helbururik pozgarri eta tonifikatzaileenetako bat, bizi laburreko Ealing ekoiztetxe britainiar ahaztezinaren erakusgarri zoragarri, satiriko eta zorioneko honen emaitza.

Are gehiago Londresko gerraosteari nola aurre egin, nola utzi atzean umorez eta sintonia onez. Hiri handiaren erdian oasi bat aurkitzea eta nahi duzunean zerbeza-pintak hartzeko, errazionamendu-kartillak saltatzeko eta nylonezko galtzerdiak erosi ahal izateko leku bat imajinatzea. Goseari aurre egiteko barrezka hastea pantailan ikusitakoa laburbiltzeko lelo egokia izan liteke. Komeni da zehaztea "gosearen urteen oroimenari" eskainia dagoela.

Leku hori, fisikoa, Londresko auzo bat da, baina hasiera batean espero ez zen dimentsio osoan, sortzaileek emandakoa, bonba baten leherketa ez hilgarriaren ondorioz sortzen den gunea da. Horren ondoren, azalera ateratzen da Erdi Aroko dokumentu bat, lurraren berezitasuna ziurtatzen duena. Dokumentu horren arabera, enklabe hori Borgoinako dukerriari lotzen zaio, hiri handia osatzen duen kukulutik aparte. Halako idealizazio engainagarri bat hiri-bitzaren iskanbilaren erdian. Ustezko paradisua estraperlistentzat eta edonolako jendearentzat, bizitzaren errealtitatea gailenduko den arren. Ia beti bezala.

Gauza ezin da zentzugabeagoa izan, baina bertakoek hainbesteko konbentzimenduz gorputzen dute, azkenean xarmangarri bihurtzen baita. Jakina, harik eta era guztietako zentzugabekeria administratiboek gauzak beren lekuan jartzearen antzeko zerbait sortzen duten arte.

Film hau ekoizpen maitagarri eta burutsuen sail batekoa da, tonu errelista baten barruan egoera delirante samarrak maneiatzten zituzten argudio bikainez gain, uharteetako talderik loratuena osatzen zuten aktoreen multzo bat ere izan zen, kasu honetan bezala, Stanley Holloway eta Margaret Rutherford.



## **PASAPORTE A PIMLICO (Henry Cornelius)**

**20 de mayo, jueves, 19:00**

**84 min**

A causa de una bomba sin explotar de la II Guerra Mundial se descubre un documento enterrado en Pimlico, una zona específica de Londres. El papel es un tratado que afirma que dicho barrio pertenece a la Borgoña francesa. Tan sorprendente descubrimiento provoca que la "Sección Pimlico", una pequeña comunidad en medio de Londres, se proclame independiente de Inglaterra e intente actuar como tal.

Reírse de los nacionalismos chatos, baratos, de medio pelo, esa es una de las aspiraciones más reconfortantes y tonificantes, concluidas de esta deliciosa, satírica y afortunada muestra de la fugaz pero inolvidable productora británica Ealing.

Todavía más Por ejemplo, cómo afrontar la posguerra londinense, cómo ir dejándola atrás a base de humor y buena sintonía. Descubrir un oasis en medio de la gran ciudad e imaginar un lugar en el que tomar pintas cuando a uno le da la gana, saltarse las cartillas de racionamiento y poder comprarse medias de nylon. Tirar de risas para combatir el hambre podría ser un lema apropiado para resumir lo visto en pantalla. Conviene puntualizar que está dedicada a la "memoria de los años del hambre".

El lugar en cuestión, físico, es un barrio londinense, pero en toda su inicialmente inesperada dimensión, la conferida por sus creadores, la que surge a raíz de la explosión no mortal de una bomba, tras la que sale a la superficie un documento de tiempos medievales que certifica la singularidad del terreno, por el cual dicho enclave se remite al ducado de Borgoña, por tanto, independiente del cogollo que conforma la gran ciudad. Una especie de idealización engañosa en medio del tumulto de la vida urbana. Un supuesto paraíso para estraperlistas y gentes de todo pelaje, aunque la realidad de la vida se acabará imponiendo. Como casi siempre.

La cosa no puede resultar más disparatada, pero está encarada con tanta convicción por los lugareños que no deja de tener su aquél. Claro, hasta que absurdos administrativos de todo tipo acaban desembocando en algo parecido a poner las cosas en su sitio.

Esta película pertenece a una serie de entrañables e ingeniosas producciones, aparte de unos magníficos argumentos que manejaban situaciones un tanto delirantes dentro de un tono realista, se caracterizaban también por una reunión de actores que constituían la flor y nata de las Islas, como en este caso, Stanley Holloway y Margaret Rutherford.

